



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 23a

115. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak sensibilizatzeko kanpainak egin ditzan biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoari eta tabakismoaren eragin kaltegarriari buruz. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondorez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako erretinoblastomari buruzko sensibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Estatistikaren Mundu Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeko espedienteari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).

- Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).
- Galdera, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Foruzaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliak Nafarroan egingen dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoari eta tabakismoaren eragin kaltegarriari buruz.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoari eta tabakismoaren eragin kaltegarriari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook honako mozio hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoari eta tabakismoaren eragin kaltegarriari buruz.

Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa biriketako patologia kroniko bat da, tabakoa erretzeko ohiturari lotua oro har. Hasierako faseetan oligosintomatikoa izan daiteke, halako moduan non diagnostikoa oharkabean pasatu baitaiteke. Sintomarik ohikoenak dira eztula, espektorazioa eta arnasa hartzeko zailtasuna, eta fase aurreragotue-

tan biriketako gutxiegitasuna pairatzeko arriskua dago, oxigenoterapia beharrezkoa izaterainokoa.

Diagnostikoa, funtsean, Oinarrizko Osasun Laguntzan egiten da, sintomak izaten hasi diren eta tabakismo-aurrekariak dituzten gaixoeekin, espirometria bat eginda.

Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoak ikusgarritasun eskasa du; hortaz, beharrezkoa da herritarrak kontzientziaztea gaixotasun horri eta tabakozaletasunaren ondorio kaltegarriari dagokienez. Espainian 3 milioi kasu daude, eta Nafarroan 11.000. Espainian hiltzeko laugarren arrazoia da, eta munduan hirugarrena.

Prebalentzia handituz doa munduan, Espainian nahiz Nafarroan, oraindik ere herritarren kontzientzia-maila areagotu behar izatearen urgenziaren erakusgarri.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egin ditzan biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoari eta tabakismoaren eragin kaltegarriari buruz.

2. Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalak kontzientziaztea patologia hori pairatzen ahal duten pazienteei espirometria bezalako proba diagnostikoak egiteko beharraz.

3. Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzea, inhalatzeko terapia hirukoitzerako sarbidea erraztu diezaien biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa duten pazienteei, hura preskribatzeko behar duten bisatua kenduz.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo, Ana Ansa, Ainhoa Aznárez eta Marisa De Simón

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

COVID-19aren pandemiak albo-ondorio sortu ditu, birusak kutsatutako eta gaixotutako pertsonak berez dauzkaten gain: patologia kronikoa dauzkaten pertsonen osasuna okertzea, patologia jakin batzuen tratamendua atzeratzea, osasun mentala larriagotzea, eta abar.

Konfinamenduak estres jarraitua eragin zuen gizarte osoan, ingurunearen kudeaketa, ziurgabe-

tasuna... Egoera honek norberak hautemandako osasunaren okertzea ekarri du. Gure ustez, horrek badu zerikusia “erkidegoaren osasun mentaltaren maila” arriskuan edo zuzenean ukituta egotearekin.

Jakin behar dugu nola sortu eta handitu den erkidegoaren osasun mentaleko arrakala hori eta beharrikanak eta ondorioak ahal den neurrian kuantifikatu behar ditugu, neurriak abiarazi ahal izateko, xedea izanik arriskuak murriztu edo apaltzea eta jendearen erresilientzia handitzea.

Bigarren kutsatze-kolpearen hasieran gaude, nola garatuko den ongi ez dakigula, baina bazter utzi gabe lehenbizikoaren intentsitate bera edo are handiagoa edukiko duela.

Gure ustez unea da abian jartzeko egoeraren diagnostikorako mekanismoak eta baliabideak ezartzeko, hilabeteetan luzatuko den egoeraren eragina moteltzeko.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du esku-hartze komunitarioko programak abiaraz ditzan, herritarren osasun mentala eta erresilientzia hobetze aldera, pandemiaren bigarren kutsatze-kolpeari begira.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan.**

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako erretinoblastomari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak egin ditzan.

Erretinoblastoma erretinaren ehunean sortzen den haur-minbizi bat da; gutxi-gutxitan gertatzen da, baina haurren artean ematen den begi barneko tumore gaizto ohikoena da. Normalean, 6 urtetik beheitiko umeengan ematen da. Tumorea begi batean nahiz bi begietan eman daiteke.

Kasuen % 40 hereditarioa da, eta RB1 genearen (13. kromosoma) bi mutazioekin lotzen da. Sintomarik ohikoenak dira leukokoria (begi-niniko isla gorriak eza edo distira zuria begiaren erdigunean), estrabismoa, glaukoma, iriseko heterokromia.

Miaketarik garrantzitsuena oftalmoskopoiaren bidez begi-hondoa baloratzea da, eta baieztatzeko eta estadiajea egiteko beharrezkoak dira begiaren ekografia, TAKa eta erresonantzia magnetiko nuklearra.

Erabilgarri dauden tratamenduen artean daude kimioterapia, begi-enukleazioa, brakiterapia, krioterapia eta termoterapia.

Biziraupen-tasa, 5 urtera, % 95etik goitikoa da, eta % 75 bitarteko kasuetan kontserbatzen ahal da begi-globoa.

Haur-minbizi kasuen % 3 egiten du. 15.000 jaioberri bizi bat. Espainian urtean 50 kasu inguru diagnostikatu dira. Nafarroan une honean 8 bat gaixo egonen dira diagnostikatu.

Behin tratamenduak eginda eta tumorea egonkortuta, errebisioak egin behar dira aldian-aldian (hasiera batean, oso maiz). Garrantzitsua da gaixo horien jarraipena egitea epe luzera.

Bestalde, gaixoen neba-arrebei azterketa egin behar zaie, eta azterlan eta aholku-emate genetiko bat egitea gomendatzen da, gaixotasuna garatzeko arriskua ezartzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio- nahiz prestakuntza-kanpainak egin ditzan osasun arloko profesionalen artean, minbizi-mota hau garaiz detektatzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontzientziazio-kanpainak susta ditzan herritarren artean, haur minbiziaren egunaren kariatara, otsailaren 15ean.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pediatriako gaixoen joan-etorrien eta mantentzearen partidak handitu ditzan.

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce eta Mikel Buil García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko.**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak

arintzeko eta prebenitzeko, Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin. Mozioa 2020ko urriaren 14ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00112).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Estatistikaren Mundu Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Estatistikaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, zeina urriaren 20an baita, eta estatistikak egungo gizartearen duen garrantzia aitortzen du.

Era askotako datuak biltzeaz, tratatzeaz, azterteaz eta interpretatzeaz arduratzen den zientzia da estatistika, dela erabakiak hartzen laguntzeko, dela gertakari baten erregularitasun-baldintzak azaltzeko. Izan ere, estatistikak ahalbidetu egiten du ezagutzaren edozein eremutako ikerkuntza zientifikoarekin lotutako prozesua bururaino eramatea: medikuntza, ekonomia, kirola, eta abar. Bestela esanda, estatistikarik gabe ez dago ikerkuntza aplikaturik.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Estatistikaren Mundu Eguna ospatzeko hautatu zuen urriaren 20a. Ospakizun hori bost urtean behin egiten da 2010az geroztik, mundu osoan ekitaldiak eginez. Egun horren garrantzia datza estatistikek erkidego-, enpresa- eta gobernu-erabakiak hartzean duten garrantzian. Ospakizun horren helburua da estatistika ofizialen ekarpen ugariak nahiz statis-

tika publikoaren oinarritzko zerbitzu- nahiz osotasun-balioak ospatzea. Halatan, estatistika ofizialen ikusgarritasuna eta gizarteak horiengan duen konfiantza areagotzea bilatzen da, datuaren independentziaren eta kalitatearen oinarritzko printzipioak berretsita.

Nafarroako Foru Komunitatean, Nastat-Nafarroako Estatistika Institutuak bere gain hartzen du produkzio estatistikoaren plangintza, eta Gobernuko gainontzeko unitateekin batera prestatzen ditu demografiari, ekonomiari, gizarteari, zientziari eta teknologiari, nekazaritzari, industriari eta zerbitzuei buruzko estatistika ofizialak. Gainera, gainontzeko erregioetako estatistika-bulegoekiko eta Estatistikako Institutu Nazionalarekiko koordinazioaz arduratzen da.

Halaber, erakundeei, enpresei nahiz herritarrei dei egin nahi zaie aipatu printzipio horien arabera erabil ditzaten estatistika ofizialak, erabakiak hobeki hartzeko modu gisa eta kontu-ematea irizpide objektiboetan oinarrituta hartzeko modu gisa”. (10-20/DEC-00098).

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeko espedienteari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeko espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion.

Zertan da “Iparraldeko, Pirinioetako eta Erdialdeko transferentziaguneen operazioa, mantentzea eta garraioa” kontratatzeko espedientea?

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

---

## **Galdera, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako 2018ko datu soziolinguistikoen 39. orrialdean esaten da 16 urtetik goitiko erdaldunen % 22,8k dakiela zerbait frantsesez edota ingelesez. Halere, Nastat-eko zuzendariak iragan urriaren 5ean igorritako artxiboaren TFan agertzen da 15 urtetik goitiko erdaldunen % 29,3k dakiela zerbait frantsesez, eta TB taulan, berriz, % 47,1ek

dakiela zerbait ingelesez. Nola azaltzen da alde hori? Ez da, ez, Euskarabidearen informazioa 16 urtetik goitikoei buruzkoa eta Nastat-ena, berriz, 15 urtetik goitikoei buruzkoa izateagatik, zeren eta bataren eta bestearen arteko aldea bospasei mila pertsonakoa baino ez da. Bestalde, Euskarabidearen txosteneko 39. orri horretako zenbatekoak eta euskaldunen artean ingelesez eta frantsesez jakiteari buruz Nastat-ek emandako erantzunean (Tn taula) emandakoak ere ez datoz bat.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

**Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko test antigenoak erosi eta erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer egunetan izapidetu zen SARS-Cov2 detektatzeko antigenoen testaren erosketa?

2.- Erosketa horren prozeduraren, zenbatekoaren, entregaren eta kostuaren xehetasuna.

3.- Antigenoen lehen testak noiz iritsi dira Nafarroara?

4.- Zein da horiek erabiltzeko prozedura?

5.- Noiz hasi dira erabiltzen antigenoen test horiek?

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén



## **Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko hondakin-urak kontrolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroan noiz hasi dira hondakin urak kontrolatzen SARS-Cov2 detektatzeko?

2.- Egindako kontrolen zerrenda eta emaitzak.

3.- Kontrol horiek direla-eta hartu diren neurriak.

4.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak hondakin uretan SARS-Cov2 kontrolatzeko jarraituko duen estrategia.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan gogoan hartu diren plan bereziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak zer plan berezi hartu du gogoan, Navarra Film Commission-ekin lankidetzan, Nafarroaren aukerak zinematografiako espazio gisa aldezteko, jaialdiak sendotzeko eta diziplina teknikoetan gazteen talentua baloratzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, PCR probak egiteko Refena erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroako Gobernuak zergatik aukeratu zuen Refena, eta ez beste eraikin publiko batzuk, PCR probak egiteko?

2.- Instalazio horren emakida-hartzaileari zergatik ez zaio deus ere ordaindu hura erabiltzeagatik azken 7 hilabeteotan?

3.- Refena PCR probak egiteko erabiltzea erabaki zen espedientearen kopia.

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Foruzaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Foruzaingoak Irunberrin 2020ko abuztuaren 15ean egindako salaketa-buletinei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko

Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dio Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

2020ko abuztuaren 15ean, Foruzaingo agenteeek zenbait ibilgailutako jabeen aurkako salaketa-buletinak bete zituzten Irunberrin.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Agente horiek zenbat salaketa-buletin egin zituzten Irunberrin abuztuaren 15ean?

– Salaketa-buletin horietako zenbat igorri zitzaizkion Irunberriko Udalari, bera baita zehapenak ezartzeko administrazio eskuduna?

– Salaketa-buletinen bat ez zitzaion udalari igorri beste administrazio bat izateagatik zehapenak ezartzeko administrazio eskuduna? Hala baldin bada, zenbat buletin ez ziren udalera igorri eta zer beste administrazioetara igorri ziren?

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketei buruzkoa.**

### **MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Espainiako Itzuliak Nafarroan eginen dituen bi etapetako gastu publikoari, osasun-neurriei eta euskararen erabilera bermatzeko ekimen eta jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2020ko martxoaren 10ean, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdik eta Kultura eta Kiroleko kontseilari Rebeca Esnaolak Espainiako 2020ko Itzuliaren bi etapak aurkeztu zituzten Navarra Arenan egindako ekitaldi batean. Ekitaldian orobat parte hartu zuten Espainiako Itzulia antolatzen duen Unipublic-eko zuzendari nagusi Javier Guillenek, irteerak eta amaierak hartuko dituzten herrietako alkateek –Iruñeko Enrique Maya, Lekunberriko Gorka Azpiroz eta Lodosako Pablo Azcona–, Movistar Team-eko kirol zuzendari José Luis Arrietak, Óscar Rodríguez txirrindulariak eta Miguel Induráin txirrindulari ohiak, zeinek bi etapen eta eginen

diren 160 kilometroen ezaugarriak zehaztu baitzituzten.

Ayerdi kontseilariak aurkezpenean nabarmendu zuen “Itzuliak Nafarroaren irudirako duen potentziala oso garrantzitsua dela, eta horrenbestez hori aprobetxatu beharra dagoela, Nafarroa nazioartean, estatuan eta are foru lurraldean bertan ere turismoko destino gisa sustatzeko publikitate-plataforma gisa”. Haren esanetan, bi txirrindulari-etapa horiei esker, “bisitariak eta telebistako ikusleak Nafarroaren natur-aberastasunaz jabetu ahalko dira”.

Esnaola kontseilariak adierazi zuen “munduko txirrindularirik onenetako asko hemen egotea pizgarri bat da kirol horren zale diren nafar guztientzat nahiz txirrindulari-eskola, klub eta ekipoetako gazteentzat”. Eta orobat adierazi zuen ezen, Itzuliaren bi etapa horietan, “nafar txirrindulariak eta ekipoak protagonista izatea eta horietakoren baten garaipena ikusi ahal izanen dugula” espero duela; eta “zaleek gozatzea eta ikuskizunaren parte izatea”.

Hori dela-eta, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako egoera ikusita, honako hau jakin nahi dut:

Bat. Itzuliaren bi etapak egiteko jarri den gastu publikoa (Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik, enpresa publikoetatik eta toki entitateetatik).

Bi. Txirrindularien, teknikarien eta, oro har, ikusleen osasun-segurtasuna bermatze aldera COVID-19a dela-eta hartutako osasun-neurriak nahiz osasun publikoko neurri bereziak (hori dela-eta sinatu diren hitzarmenen eta akordioen dokumentazioa igortzea eskatzen dut).

Hiru. Itzuliaren garapenean eta komunikazioetan euskararen erabilera bermatzeko ezarri diren ekimenak eta jarduketak.

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

